



*Castildetierra
Errege-Bardeen Parke Naturala
Iturria: Nafarroako Turismoa
Egilea: Francis Vaquero*

H_{LH4}

2021-2022

Izen-abizenak:

Ikastetxea:


Ikastaldea/Ikaskgela:

Herria:

Data:

Euskal Hizkuntza Gaitasuna

LHko 4. maila



Jarraibideak

Hiru zati dituen proba egingo duzu:

1. zatia - Entzunaren ulermena

“*Urko naturazalea*” izeneko testua **hiru aldiz** entzungo duzu eta entzundakoari buruzko galderari erantzun beharko diezu. Horrela egingo duzu:

- Lehenik, galderak irakurtzeko **bi minutu** izango dituzu.
- Ondoren, hiru aldiz jarraian entzungo dugu. Errepikapen bakoitzaren ondoren, minutuko bateko isilunea izango duzu galderak berriro irakurtzeko, erantzunak berrikusteko...
- Hirugarren aldiz entzundakoan, galderari erantzun badiezu, irakurriaren ulermena egiten has zaitezke.

2. zatia - Irakurriaren ulermena

Zati honetan **bi testu** irakurriko dituzu:

- *Izen bat Axunentzat.*
- *Berotan handi, hotzetan txiki.*

Irakurritakoari buruzko galderari erantzun beharko diezu. **Hainbat galdera mota** topatuko dituzu:

- Aukera anitzeko galderak: **hautatu zuzena** eta **borobildu** alboko hizkia. Adibidea:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak adina.
- B. 200.000 inguru.
- C. Milioi bat.
- D. Hainbat milioi.

Erantzuna aldatu nahi baduzu, gurutzatu erantzuna **X** jarritz eta borobildu erantzun zuzena:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak adina.
- B. 200.000 inguru.
- C. Milioi bat.
- D. Hainbat milioi.

- Egia (E) ala gezurra(G) motakoak.
- Ideiak erlazionatzekoak.
- Puntuekin adierazitako espazioan erantzun beharrekoak:

Zein da Nafarroako hiriburua?.....

3. zatia - Idazmena

Ikaskideei mezu elektronikoa idatzi behar diezu zure urtebetetze festara gonbidatzeko:

- Idazten hasi aurretik, hainbat galdera topatuko dituzu; **ez dituzu erantzun behar**, ideiak emateko baino ez dira.
- Zirriborrea egitea ezinbestekoa da horretarako utzitako espazioan.
- Behin betiko testua puntu - lerroetan idatzi behar duzu; ez da ezinbestekoa guztiak erabiltzea.



Proba hau egiteko 70 minutu dituzu.

1. zatia - Entzumena

URKO NATURZALEA

1. Goizero, eskolarako bidean, Urkok amets egiten zuen...

- A. ibai zabalean bainatzen ari zela.
- B. mendian zebilela.
- C. ikasgelan animaliekin zegoela.
- D. zuhaitzak zaintzen zituela.

2. Semaforoan ordez, zer imajinatzen zuen Urkok?

- A. Zomorroak.
- B. Jirafak.
- C. Harkaitzak.
- D. Adarrak.

3. Lotu Urkok ikusten zuena eta imajinatzen zuena.

1. Kale argiak.	A. Mendi bidexkak.
2. Espaloiak.	B. Ur gardeneko ibai zabala.
3. Semaforoak.	C. Harkaitzak.
4. Kaleak.	D. Habiaz betetako zuhaitzak.

1	
2	
3	
4	

4. Zeri buruz zekien bere gelako inork baino gehiago Urkok?

- A. Ibaiei eta mendiei buruz.
- B. Animaliei eta ibaiei buruz.
- C. Animaliei eta landareei buruz.
- D. Landareei eta zomorroi buruz.

5. Zer adierazi nahi du “naturzalea” hitzak?

.....

.....

6. Esan esaldi hauek egia ala gezurra diren:

	E	G
A. Olerki bat entzun dugu.		
B. Narrazio bat entzun dugu.		
C. Elkarrizketa bat entzun dugu.		
D. Deskribapen bat entzun dugu.		

7. Urko...

- A. eskola oso gustuko duen irudipen handiko mutila da.
- B. naturari buruzko filmak biziki maite dituen mutila da.
- C. hirian bizitzea ikaragarri maite duen mutila da.
- D. natura maite duen irudimen handiko mutila da.

2. zatia - Irakurmena

LEHENENGO TESTUA

IZEN BAT AXUNENTZAT



Goiz eguzkitsu batean maitagarri bat asun baten azpian eserita zegoen, oso maitagarri berezia zen hura. Hegoak soka batzuekin lotuta zeuzkan, eta triku baten antza zuen bere ile puntazorrotz haiekin. Oso goibel zegoen maitagarria, izenik ez zuelako.

Heldu zen zizare bat eta maitagarriaren aurrean gelditu zen.

- Nola duzu izena? -galdetu zion zizareak.
- Nik ez dut izenik -esan zuen maitagarriak.
- Hara! Badaukat izen polit bat zuretzat. Zizare deituko dizugu -esan zion zizareak.
- Ez! -erantzun zion maitagarriak-. Ez dut Zizare deitzerik nahi. Hori ez da niretzat izen egokia.



Zizareak, hori entzutean, alde egin zuen. Gero armiarma bat heldu zen.

- Kaixo! -esan zion maitagarriari-. Nola duzu izena?
- Nik ez dut izenik -erantzun zion maitagarriak.
- Nahi baduzu, Armiarma deituko dizugu -esan zion armiarmak.
- Ez! -erantzun zion maitagarriak-. Ez dut Armiarma deitzerik nahi.



Eta armiarmak bere bidea jarraitu zuen. Erle bat hurbildu zitzaion gero maitagarriari.

- Kaixo! Nola duzu izena? -galdetu zion.
- Nik ez dut izenik -erantzun zion maitagarriak.
- Nik badut izen polit bat zuretzat. Erle deituko dizugu.
- Ez! -erantzun zion maitagarriak-. Hori ez da izen egokia niretzat.

Eta erleak aurrera jarraitu zuen.

Gnomo bat heldu zen azkenik. Eta esan zion maitagarriari:

- Zu zara maitagarri berria, ez? Ba al duzu izenik?

- Ez, ez daukat -erantzun zion maitagarriak-. Baina ez dut Gnomo deitzerik nahi.

- Nire izena ez da Gnomo -esan zuen gnomoak barrez-. Askojakin dut izena, eta badakit maitagarriei nola



deitu behar zaien: landareen izenez. Zu landare baten azpian azaldu zara. Bada, zure lehenengo izena landare horrena da. Eta bigarrena, handik hurbilen dagoen landarearena.

- Zein da, orduan, nire izena? -galdetu zuen maitagarriak.

- Begira, nik asun hauen azpian aurkitu zaitut -esan zion Askojakinek-. Horregatik, zure lehenengo izena Asun da. Eta hemengo landare honen izena Betibizi da. Garbi dago, orduan, zure izena Asun Betibizi dela.

- Nahiago dut Axun deitzea, Asun baino.

- Bai -erantzun zion Askojakinek-. Arrazoi duzu.



Horrelaxe jakin zuen, bada, Axun Betibizik bere izena zein zen.

Axun maitagarria, pozaren pozez, dantzan eta kantari aritu zen neka-neka eginda geratu arte. Gelditu zenean, esan zion Askojakinek:

- Ezin zaitut hemen bakarrik utzi. Zatoz nirekin eta maitagarri gehiago ezagutuko dituzu.

Askojakinek eskutik heldu zion Axuni eta bidean aurrera jarraitu zuten. Gero zubi txiki bat igaro zuten eta, ibaiaren beste aldean, maitagarri askorekin elkartu ziren.

- Kaixo, hemen duzue maitagarri berri bat: Axun Betibizi-esan zien Askojakinek.

- Kaixo, ni Mari Txintzarri naiz -esan zion maitagarri batek-. Elkarrekin askalduko dugu?

Eta horrela, Axun eta Askojakin Mari Txintzarriekin eta beste maitagarriekin batera eseri ziren.

Egun horretatik aurrera Axun Betibizi oso zoriontsu bizi izan zen maitagarrien basoan.

Iturria: "Irakurriko al didazu ipuin bat mesedez?"; **Egilea:** Lynda Britnell; **Ilustratzailea:** Penny Dann; **Itzultzailea:** Manuel Arregi; **Argitaletxea:** Ttartalo; 2000

8. Zeren antza zuen maitagarriak?

- A. Asun baten antza.
- B. Hosto batzuen antza.
- C. Triku baten antza.
- D. Pinu baten antza.

9. Zergatik zegoen triste maitagarria?

- A. Triku baten antza zuelako.
- B. Hegoak lotuta zituelako.
- C. Asun batekin min hartu zuelako.
- D. Izenik ez zuelako.

10. Zer proposatu zion armiarmak maitagarriari?

- A. Armiarmekin bizitzea.
- B. Armiarma izena jartzea.
- C. Zizare deitzea.
- D. Lagunak izatea.

11. Zergatik esan zion maitagarriak Askojakin gnomoari berak ez zuela Gnomo deitzerik nahi?

- A. Maitagarria eta Askojakin lagunak ez zirelako.
- B. Maitagarriak ordurako bere izena zein zen bazekielako.
- C. Gnomoaren proposamena hori izango zela uste zuelako.
- D. Landare baten izena nahiago zuelako.

12. Testuan hainbat pertsonaia agertzen dira. Zein ordenatan agertzen dira ipuinean?

- A. Armiarma, zizarea, erlea eta gnomoa.
- B. Gnomoa, armiarma, zizarea eta erlea.
- C. Zizarea, erlea, gnomoa eta armiarma.
- D. Zizarea, armiarma, erlea eta gnomoa.

13. Zenbat animaliarekin hitz egiten du maitagarriak?

- A. Batekin.
- B. Laurekin.
- C. Hirurekin.
- D. Bostekin.

14. Zer behar zuen maitagarriak pozik egoteko?

.....
.....

15. Askojakin gномоaren arabera, nola deitu behar zaie maitagarriei?

.....
.....

16. Zergatik zen “Betibizi” Axunen bigarren izena?

- A. Maitagarria “Betibizi” izeneko landare baten azpian eserita zegoelako.
- B. Basoko maitagarri guztien bigarren izena “Betibizi” zelako.
- C. Asun landaretik gertuen zegoen landarea “Betibizi” deitzen zelako.
- D. Askojakin gномоari izen hori asko gustatzen zitzaiolako.

17. Esan honako enuntziatu EGIA ala GEZURRA diren.

	E	G
A. Axun Betibizik gnomoari esker jakin zuen bere izena zein zen.		
B. Maitagarria oso triste zegoen bakarrik sentitzen zelako.		
C. Axun eta Askojakin Mari Txintxarri eta beste gnomo batzuekin batera eseri ziren.		
D. Maitagarria ez zen konforme geratu zizareak egin zion proposamenarekin.		

18. Zergatik uste duzu gnomoa Askojakin deitzen dela?

.....

.....

19. Zergatik uste duzu maitagarriak izen bat nahi duela?

- A. Bere lagun guztiek izen bat dutelako.
- B. Bere identitatea izan nahi duelako.
- C. Besteek bera nor den jakitea nahi duelako.
- D. Garrantzitsua sentitu nahi duelako.

20. Zer dira maitagarriak eta gnomoak?

- A. Basoko animalia mota batzuk.
- B. Antzina basoetan bizi ziren izaki batzuk.
- C. Mozorrotutako benetako pertsona batzuk.
- D. Ipuinetan agertzen diren pertsonaia fantastiko batzuk.

21. Zertarako agertzen dira gidoiak esaldi batzuen aurrean?

- A. Gaia aldatzeko.
- B. Elkarrizketa dela aditzera emateko.
- C. Ideia nagusiak nabarmentzeko.
- D. Animalien pentsamenduak adierazteko.

Lehenengo testuko galderen amaiera



Jarraitu hurrengo orrialdean

BIGARREN TESTUA

Berotan handi, hotzetan txiki

Beroa egiten duen egunetan, zure etxea, ohea, autoa, jostailuak... handitu egiten dira? “Hori galdera tontuna” pentsatuko du batek baino gehiagok; “Ez, noski! Bero edo hotz egin, aipatutako horien guztien tamaina beti bera da!”.

Hori, ordea, ez da beti gertatzen; gauza batzuk hedatu, handitu egiten dira beroarekin, eta uzkuritu edo txikitu hotzarekin. Adibiderik nahi? Bada, gasa.


Bai, gasa, arnasten dugun hori. Esperimentu erraz baten bidez frogatuko dugu.

Behar dituzu:

- Botila bat
- Puxika bat
- Ur hotzez betetako ontzi bat
- Ur beroz betetako beste bat

Zer egin:

- 1.** Hartu puxika, sar ezazu botilaren ahoan, eta ziurtatu ez dela gelditzen aireak alde egiteko zirrikiturik.
- 2.** Hartu botila eta sartu ur berotan. Ikusi, ikusi nola puzten den puxika!
- 3.** Atera ur berotatik botila, eta sartu ur hotzetan; puztutako puxika hustu egin da!



1.



2.



3.

Zer gertatu da?

Ur berotan sartzean, botila berotu egiten da, eta barruan duen gasa ere bai. Gasa, berotzen denean, hedatu egiten da, eta botilak ezin du gas hori hartu. Orduan, botilatik atera eta puxika puzten du atera den aireak.

Ur hotzetan sartzean, berriz, kontrakoa gertatzen da: airea hoztu egiten da, hoztean uzkuritu egiten da, eta botilaren barrura itzultzen da.

22. Testuan “hori galdera tontuna” esaldia agertzen da. Zer ideia adierazi nahi du?

- A. Galdera logikoa eta ulergarria dela.
- B. Galdera hori egiten duena tontoa dela.
- C. Fundamenturik gabeko galdera dela.
- D. Erantzuna ezin errazagoa dela.

23. Zer kontatzen du testuak?

- A. Esperimentu bat.
- B. Errezeta bat.
- C. Ipuin bat.
- D. Jarraibide batzuk.

24. Zer behar duzu esperimentu hau egiteko? Adierazi hurrengo enuntziatuak EGIA ala GEZURRA diren.

	E	G
A. Bi botila.		
B. Ur hotzez betetako puxika bat.		
C. Puxika bat.		
D. Ur hotzez betetako botila bat.		
E. Ur beroz betetako ontzi bat.		

25. Nola puzten da puxika?

- A. Botila ur berotan sartuz.
- B. Botila ur berotatik ateraz.
- C. Botila ur hotzetan sartuz.
- D. Botila ur hotzetatik ateraz.

26. Bete hutsuneak laukiko hitzak erabiliz, enuntziatu zuzenak osatzeko:

berotzen	hedatzen	ateratzen
hedatu	atera	puztu

- A. Gasa _____ denean, _____ egiten da.
- B. Gasa _____ denean, botilatik _____ egiten da.
- C. Gasa botilatik _____ denean, puxika _____ egiten da.

27. Zergatik da esperimentu honen izenburua “Berotan handi, hotzetan txiki”?

.....

28. Esperimentu hau:

- A. Umeek egin ahal dute.
- B. Helduek bakarrik egin ahal dute.
- C. Nahiko arriskutsua da.
- D. Egiteko oso zaila da.

Bigarren testuko galderen amaiera



Jarraitu hurrengo orrialdean

3. zatia - Idazmena

Orain zeu zara idazlea...

Ikaskideentzako mezu elektronikoa



- 29.** Hurrengo astean zure urtebetetzea izango da eta festa berezi bat ospatu nahi duzu zure ikaskideekin. Idatz iezaiezu mezu elektronikoa bat zure gelako ikaskideei zure urtebetetze festara gonbidatzeko.

Hurrengo orrialdean honakoak dituzu eskura:

- Idazlana osatzen lagunduko dizuten esaldi batzuk. Ideiak emateko bakarrik balio dute.
- Zirriborroa egiteko lekua. Zirriborroa egitea derrigorrezkoa da.
- Behin betiko testua idaztean, gogoratu ideiak lotzeko hitzak erabili behar dituzula. Hemen dituzu erabil ditzakezun batzuk:

hasieran, ondoren, geroago, bukaeran...

hala ere

horregatik

alde batetik, bestetik

gainera

1. **Zergatik** den hain **berezia** zure urtebetetzea ospatzeko festa hau.
2. Zein **egunetan** eta zein **tokitan** ospatuko duzun festa.
3. Zer **jarduera** egingo duzuen egun horretan.
4. Zein **lagun** joango diren zure festara.
5. Eskatu zure gonbidatuei festara joango diren ala ez **erantzuteko**.

ZIRRIBORROA

IDATZI AURRETIK, ideiak antolatuko ditut:

1. paragrafo	
2. paragrafo	
3. paragrafo	

***Irakasle zuzentzaileak erabili eta bete beharreko
puntuazio-taula***

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza (0 edo 1)	
Txukuntasuna eta ortografia	
Istorioaren koherentzia eta egokitzapena	
Kohesioa	
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegi-aberastasuna	

29. itema – Osotara:

/13